



«Lizaso, Lizardi, Errazquin eta Goñi, Euskal erriko txistulari obenetako laukote osatu zuenen garaian».

ERRENDERIKO TXISTULARIAK URTEAK ZEAR

XABIER

Goizaldi ereski batean, txistularien zortziko alai bat entzun nuanean, goizeko bederatziak ziran. Beren ibillaldiari asiera eman ziotenean gai bat bururatu zitzaidan; gure erria bertsolari erria ez ezik, txistulariena ere ba dala.

Urtietan zear aldaketa asko izan ditu, bañan nere jakin naiean, gai au bear dan eran erabiltzeko laguntza berezi bat izan det: gurea degun txistulari Periko Lizardi'rena.

Joan zan gizaldiaren azkenetan lenengo txistu otsak entzun ziran gure errian. Manuel José Uranga, Francisco San Sebastián, Manuel Arocena, Ascensión Bidegain eta Santos Uranga izan ziran lenengoetakoak; geroxeago Manuel Ansorena, F. Vergara eta Eusebio Berasategui; auen ondoren Jose Antonio Jauregui, bere seme Juan, eta berriro Eusebio atabalero zutela.

Urteak aurrera eta bere lanak beartuta, Jose Antoniok txistua utzi bearra izan zuan—au 1924'gn. urtean gertatu zan—. Ordezkoa aukeratu bear eta artarako leiaketa bat Udal Etxean egin ondoren, mutil gazte bat irten zan garaille: Isidro Ansorenaren ikasle berezia zan Alejandro Lizaso. Goi mallako txistularia zetorrela zioten guztiak, eta ala gertatu ere; bere izena urtietan zear Euskalerrri eta erbestean oso goratua izan zan.

Gazte onek aldakuntza berezi bat eman zion taldeari; Juan Jauregui eta Eusebiok bere lanari utzirik, lagun

berriak arkitu zituan. Periko Lizardi, bere aita Guillermo, eta Martin Goñirekin, talde berria eratu zuan lenengo aldiz txistularien laukotea gertatuaz.

Beren egintzari tinko jarraituaz, 1925'gn. urtean lenengo aldiz leiaketa batera irten ziran, bai bakarka eta baita ere laukotearekin. Donostian izan zanean, Miramar antzokian gertatu zan: amesei urteko mutil gazte batek, orduan ziran txistulari aipatu Onraitia, Vitoria, Lecea eta Txanboliñen artean, lenengo zaria irabazi zuan epai maiekoak arriturik utzirik bere saio bereziarekin; talde osoakikoaren leiaketan bigarren gelditu ziran, Gazteiz'ko txistulariak aurren zirala.

Urrengo urtean taldea berritu, gaztetu egin zuan, Eugenio Errazkin (txistu aundi) eta Evaristo Goñi (atabal) berekin artuaz, eta ordutik aurrera taldeak, ikaskizun berriekin, jarraipide bereziak artu zituan.

Garaille 1927'gn. urtean Donostia eta Bergaran izan ziran leiaketan eta andik urte betera, gurendarik aundiena Bilbo'ko Arenal berrian; Gazteiz, Sestao, Tolosa, Bilbao eta Bermeoko txistulariak ziran Errenderiko gazteekin batera azaldu ziranak jai aldi artan, eta lenengo saria gure erritarrak iritxi zuten. Ordukoak dira gure erriko aldizkarian azaldu ziran lerroak: «Bilboko lan ola eta langille erri artako kemenpean. Lizasoren txistu ota entsun zan bere antesdun lagunak itzal olerki eresiz betea ematen ziotela. Ez amets egin



Orain ere, igande eta jailetan «...kalerik kalez ortxen dijoa pozik txistularia...»

mutikoak garaille irtetzea (esaten die ertzain batek orren gazteak ikusita errukituaz) beren saioari ekitera zihoaztela; Gazteizko taldeak ezin ta obetoago egin baidu zuen aurretik. «Egon lasai, jo ta kia atera bear ziegu», esaten die Lizasok bere lagunei, eta itz auen ondoren, igotzen dira Arenaleko Kiosko berrira.»

Zer gertatu zan gero? Goralmen bat batekoa izan zan bertan zeuden guztien artean, epai maiekoak parremurriz arriturik, sinismen emanaz an gertatu zanari, lenengo saria gazte talde arreri eman zioten entzule guztiak aipakotzat artzen zituztela. Egun artan eta gazte aien artean, an zegon, beti bezela, beren laguntzalle berezi izan zan Ignacio Lecuona, ainbat lan eta laguntza beren alde egin zuana, eta danak elkar arturik ekarri zuten Errenderira sari berezi ura.

Ordutik aurrera beren izena oso ezagun izan zan eta dei asko izan zituzten Euskal Erri eta erbestean; Paris eta Barcelonak beren txistu otsa entzun zuten, bai ta ere itxasoz aruntz Mexikotik dei egin zieten bertako Euskal-Etxeak. Lizaso eta Lizardi joan ziran bertan azaldurik txistuaren ots alaiak eta beren egoeran egin zizkieten goralmen eta oroigarriak ez ziran nolanaikoak izan.

1936'go guda artean Euskal-erriko lurraldietan eriotza arkitu zuan goi malletako txistulari izan zan Alejandro Lizasok. Berak ain maite izan zuan erriak geiago bere txistu soñurik ez du entzun; txistua tamal dago, egun aietan irten zan olerki batek esaten zuan, bañan ziur nago bere txistu otsa zero goiean entzungo dala tamaltasun ura aldenduaz.

Guda ondoren M. Rodriguez, Ubiria, Calafel eta Gabarainek jarraitzen dute txistu otsak gure errian aztu ez ditezten, bañan 1946garren urtean berrira, eta Lizardiren zuzenpean, elkartzen dira Errazkin, Goñi eta Mariano Goikoetxea lagun berria tartean dutela. Denbora asko igaro bañon len Eugenio Errazkinek (txistu aundi), 1947'gn. urtean betirako utzi ginduan. Ura zalata, berrira aldaketa izan eta zan beste batzuek ere bai urrengo urtietan, orain ezagutzen ditugunak gelditu arte.

Azken urte auetan, bai Luistar taldeak, Martinez anaiak, Salsamendi, Gaztelumendi, Bengoetxea eta abar, eta baita ere «Ereintza» elkarteak eratutako talde bereziak izan ditugu: Izagirre anaiak, Oliveri anaiak. Bengoetxea, Bagües, Urruzola eta beste gazte askok zaletasunez beterik jarraitzen dute txistuari tinko entsiaz.

«Ereintza» elkarteak gai onetaz gaztediaren artean lan onurakorra egiten du eta gaztediak jarrai egiten dio beren ikaskizunak ontzaz artuaz.

Zaletasun oneri jarraitzen bazaio, ziur egon giñezke Errenderi txistulari erria izango dala, eta zuek zero goiean zaudeten Lizaso. Errazkin, Jauregi, Ansorena, Berasategi eta gañerakoak, lagundu gaztedi oneri Errenderi txistuaren oñarri berezia izan dedin.

Goizaldiaren ots garbiakin alai da egunsentia kalerik kalez ortxen dijoa pozik gaur txistularia entzumenetan amets bezela jartzen du bere eresia esnatu zaite alaiturikan Errenderiko erria. txistu zalea izango da ta maite zaitun gaztedia.